



# Berbalagun



# Praktikatu Euskaraz Gurekin



Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin; edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat.

**Giro atseginean eta lagunartean**, ahalegin handirik gabe, ordutegi arazorik gabe... zeuk erabakiko duzu noiz eta nola.

**Edonork har dezake parte:** euskararen bidea egiten ari denak, praktikaren bidez euskara hobetu nahi duenak edota euskaraz bizitzeko aukera gehiagoren bila dabilenak. Parte hartzeko, gutxieneko euskara-maila eskatzen da

**OHARRA:** Mintzapraktika taldeetan, eta antolatzen ditugun ekintza guztietan, segurtasun neurriak bermatuta daude, eta era berean COVID19rako protokoloa aplikatzen dugu.



## Kultura eta Aisia

Antolatzen ditugun ekintzen bidez, beste hainbat aukera topatuko dituzu **euskal kultura ezagutzeko eta euskara praktikatzeko**. Besteak beste: hitzaldiak, irakurzale-klubak, sukaldaritza-, eskulan-, yoga- edo dantza-tailerrak; kantulagunak...



## Kirola eta Natura

**Kirolaren edo naturaren inguruko jarduerak** ere egiten ditugu: mendilagun, bizikletaz ibiltzeko taldeak, martxa nordikoa, yoga, berbabentura (eskia, eskalada, surfa...), etab.



## Mintzodromoak

Mintzodromoak herriko plazan antolatzen dira, eta **aukera ezin hobeak izaten dira inguruko euskaltzaleok batzeko**. Jalgi hadi plazara!



## ONLINE ere bai

Zure ordenagailu, tablet edo telefonotik beste euskaldun batzuekin hitz egin nahi baduzu, online eskaintza ere baduzu: mintzataldeak, autu-mautuak, lehiaketak...



## Abantailak

Parte-hartzea dohainik da, eta hamaika **abantaila eskura ditzakezu**: emanaldietarako sarrerak, zozketak eta opariak, deskontuak (esaterako, AIZU!, ARGIA, BERRIA, GAZTEZULO eta HARMAILAko harpidetzetan)...



## Mintzataldeak

Partaideak binaka, hirunaka... edo talde txikietan batzen dira; horiek osatzeko, kontuan hartzen ditugu parte-hartzaileen disponibilitatea, adina eta zaletasunak.

Mintzataldeak bildu ahal dira kafetegian, tabernan, edo paseoan ibiltzeko... **Parte-hartzaileek erabakitzen dute non eta noiz**, beti lagun-giroan.



## Gurasolagun

**Familiatzako mintzataldeak dira**; jolasak, txangoak eta tailerrak egiten ditugu, **helduak eta haurrak batera aritzeko**. Hainbat familia batzen direnez, aukera aproposa ere bada lagun berriak egiteko. Asteburu-pasak ere antolatzen ditugu (urtean bitan, gutxienez).